

## **Eskola kirola abian da berriz**

*Eusko Jaurlaritzaren urtarrilaren 12ko 1/2021 Dekretuan oinarrituta hartu da erabakia*

**Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 12a.** Alarma egoeraren deklarazioaren esparruan berriazko prebentzio neurri berriak ezartzen dituen urtarrilaren 12ko 1/2021 Dekretua oinarritzat hartuta, Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak jakinarazi du eskola kiroleko programa abian jarriko dela berriz.

Dekretuan jasotakoaren arabera, programaren barruan eskola kiroleko entrenamenduak egingo dira; gehienez sei laguneko taldeak egingo dira, kideak beti berberak izango dira eta ezingo dira aldagelak erabili. Gainera, maskara nahitaez erabili beharko da, salbu espazio naturaletan, oinezkorik ez dabilen hiri ingurune periferikoetan, igerilekuetan eta jarduera fisiko bizia egiten den une berezietan.

Dekretuaren informazio horri gehitu behar zaio indarrean jarraitzen duela “COVID-19aren aurrean jarduteko arau orokorrak” izeneko protokoloak, ezertan eragotzi gabe edukiera orokor edo espezifikotetan edo dekretuak adierazten duen beste edozein gaitan egin beharreko eguneratzeak, eta ondoren, dekretuan oinarrituta Eusko Jaurlaritzak egin dezakeen garapena.

Pixkanaka jarriko da martxan bihurtik (asteazkena) aurrera, klub bakoitzak behar diren instalazioak erabilgarri jartzeko dituen espezifikotasunen arabera (bereziki udal instalazioak behar dituztenenak). Nolanahi ere, Ana del Val Kultura eta Kirol Saileko diputatuak esan duenez, “Albiste ona da, federazioak eta klubak sobera daudelako prest programari berriz ekiteko; izan ere, uda honetan eta ikasturte hasieran, jende guztiak modu eredugarrian onartu zituen araudi berriak, ziurgabetasun handiko egoera honetan”.

Foru arduradunak adierazi duenez, “Bizi dugun ohiz kanpoko egoera dela eta, arduraz lan egin dugu beti, eta eskola kirola abian jartzeari begira beti, egoerak horretarako aukera emanaz gero. Izan ere, onura emozional, sozial eta motor ukaezinak ditu ikasleentzat. Horixe azpimarratu dugu ahal izan dugun foro bakoitzean, eta horrela lan egin dugu pribatuan, gaur egun bizi dugun egoera hau berriro etor zedin”.

“Foru Aldundian badakigu etete horrek egoera latza ekarri zuela; lehenik eta behin, haurrentzat, entrenamenduak eta, beraz, programaren onurak atzeratu baitziren, baina baita kiroleko eragile guztientzat ere, zeinek protokoloak modu eredugarrian bete baitzituzten eta ez baitzuten inolako erantzukizunik jarduera bertan behera uzteko premia epidemiologikoan. Hori dela eta, eskerrak eman nahi dizkiet izan duten pazientziagatik, bai eta ekiteagatik ere; baina, batez ere, eskola kirolarekiko erakutsi duten konpromisoagatik” esan du, amaitzeko, del Valek.